

1.- Materialen propietate mekanikoak:

Gorputz batek jartzen duen erresistentzia da, bigarren batek marratzen duenean, eta kohesioaren arabera da.

Indar batek gorputz bat deformatu egiten du, indar hori kendutakoan deformazioa desagertzen bada, gorputza elastikoa da. Gorputz gehienek dute elastikotasun muga bat; indarra handiagoa izanez gero, deformazioak iraunkorrak bihurtzen dira, eta plastikotasunaren eremuan sartzen dira.

Indar batek gorputz bat deformatu egiten du, indar hori kenduta deformazioak jarraitzen badu, gorputza plastikoa da.

Talka batengatik apurtzerakoan, gorputz batek xurgatzen duen energia da.

Lotura-indarrei esker daude elkartuta partikulak gorputzean; elkarrengandik banantzeko ezartzen duten erresistentzia da kohesioa. Atomoak edo molekulak euren artean pixka bat aldentzerakoan, elastikotasuna edo plastikotasuna gertatzen da.